

Paleolitikoko margoak aurkitu dituzte Errenteriako koba batean



Aitzbitarte kobazuloan aurkitutako margoetako bat. ARG.: JOSEBA RIOS GARAIZAR.

2012an, orain arte ezagutzen ez ziren margo batzuk aurkitu zituen arkeologotalde batek Aitzbitarte IV kobazuloan (Errenteria, Gipuzkoa); azterketak egin ondoren, orain argitaratu dituzte emaitzak, *Munibe* aldizkarian.

Ikertzaile-taldeko kide Joseba Rios Garaizar arkeologoen arabera, ez dute zailtzarrik margoak Paleolitikokoak direla, baina, "zoritxarrez", ez dute aukerarik kronologia zehazteko ere. Kobazuloaren barrunbean eta sarreran daude margoak: barrunbean dauden arrastoak zarakar estalagmitiko batez erdi estalita daude, baina animalia-itxura dutela dirudite; sarrerakoa, berriz, orban zirkular bat da, kolore gorrikoa.

Margoak ikusgarriak ez diren arren, ez dira hutsalak, inondik inora ere. Izan ere, Gipuzkoako beste lau kobazulotan ere aurkitu izan dira margoak, baina, orain arte, inoiz ez lurraldearen ekialdean. Barandiaranek eta Altunak, ordea, aspaldi erakutsi zuten Goi Paleolitoan bazirela gizakiak Aitzbitarte inguruan, eta arte higigarriaren adibide batzuk ere topatu izan dira. Hortaz, margoak aurkitu izanak indartu egiten du eremu hura bizileku garrantzitsua izan zela babes-ten duen hipotesia. ●

Nekazaritza organikoa onuragarria dela baieztatu du Europako EFIC Agentziak

Produktu eta nekazaritza-jarduera organikoen onurak frogatuzat jo ditu EFIC Elikagai buruzko Informazio Kontseilu Europarrak, produktu eta jarduera horiei buruzko ikerketa zientifikoak biltzen dituen txosten batean. Txosten berean kontsumitzaileen pertzepzioaren berri ere eman dute, eta haiek produktu organikoak begi onez ikusten dituztela nabarmendu du EFICek, nahiz eta horretarako ematen dituzten arrazoietakoz batzuk ez dauden ebidentzia zientifikoe-tan oinarrituta.

Horren adibideetako bat da elikagai organikoen balio nutrizionalari buruzko ustea. EFICen esanean, elikagai organikoen kontsumitzaile gehienek uste dute produktu organikoak arruntak baino

aberatsagoak direla nutrizioaren ikuspuntutik. Alabaina, ohartarazten du egin diren ikerketetatik ezin dela halakorik ondorioztatu.

Hala ere, ingurumenean eragiten dute inpaktuari dagokionez, produktu eta jarduera organikoak onuragarriagoak dira ohikoak baino. Esaterako, ekoizpen organikoan, lurak nitrato eta fosfato gutxiago galtzen du, eta berotegi-gas gutxiago isurtzen da. Biodibertsitatean eta abereen ongizatean, aldiz, ez dute ondorio garbirik ateratzerik izan, eta gauza bera gertatzen da baliabideen erabileraren eraginkortasunean edo ezaugarri sensorialetan.

Segurtasunari buruz, EFICek azpimarratu du elikagai organikoak ohikoak be-



Elikagai organikoen Europako logoa. Etiketa honek bermatzen du produktua ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izateko moduan ekoitzi dela eta jarduera organikoaren araudia betetzen duela. ARG.: EUROPAR BATASUNA.

zain seguruak direla, eta dagokien etiketarekin bereizita daudenak berme osoa dutela. Aipatzekoa da elikagai organikoen kontsumitzaileek, batz bestea, gainerakoek baino fruta eta barazki gehiago jaten dutela. ●